

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

**Foru Gobernu Kontseiluaren 1/2021 Foru Dekretua, urtarrilaren 12koa. Onestea pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan eta sozietateen gaineko zergan 2021ean aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak xedatzen duenaren arabera, kostu bidezko edo kostu gabeko eskualdaketetan, dagozkien ondare elementuen eskuratze balioa eguneratu egingo da erregelamendu bidez onartzen diren koefizienteak aplikatuz, batez ere haien eskuratze egunetik kontsumoko prezioen indizeak izandako bilakaera eta haien eskualdatze ekitaldirako aurreikusten dena kontuan hartuz.

Hori dela eta, foru dekretu honen xedea da finkatzea 2021ean izaten diren eskualdaketei ezarri beharko zaizkien eguneratze koefizienteak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zerga ordaindu behar dutenen ondare irabaziak edo galerak kalkulatzeko.

Bestalde, Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak xedatutakoaren arabera, ibilgetu materialaren, ukiezinaren edo higiezinetakoa inbertsioen ondare elementuak eskualdatzean lortutako errenta positiboak zerga oinarrian integratzeko, honako hau kendu behar da, errenta horien mugaraino: eskualdatutako elementuari buruz legez baimendutako azken eguneratzeak edo, elementu hori geroagokoa bada, eskuratu zen egunetik izandako monetaren balio galeraren zenbatekoa, erregela batzuen arabera kalkulatuta. Lehenengo erregelak dio eskualdatutako ondare elementuen eskuratze prezioa edo ekoizpen kostua eta haiei dagozkien amortizazio metatuak erregelamendu bidez ezartzen diren koefizienteek biderkatuko direla.

Horren ondorioz, foru dekretu honen xedea da erregelamenduzko garapen hori egitea, adierazi diren koefizienteak ezarriz, 2021ean hasten diren zergaldien barruan egindako eskualdaketei aplikatzeko.

Xedapen hau da helburu hori lortzeko tresnarik egokiena.

Araudi honek proportzionaltasun printzipioa betetzen du, eta xedapen horrekin bete nahi den beharrari erantzuteko ezinbestekoak diren arauak biltzen ditu. Ez dago xede horretarako beste neurririk, hartzaileen eskubideak gutxiago murrizten dituenik edo hartzaileei betebeharrak gutxiago jartzen dizkienik.

Ekimen honen bidez segurtasun juridikoaren printzipioa bermatzen da, eta koherentea da nazioko eta Europar Batasuneko gainerako ordenamendu juridikoarekin.

Foru dekretu hau izapidetzean gardentasun irizpidea aplikatu da; printzipio hori, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen du 129. artikuluan.

Arabako Foru Administrazioaren Aholku Batzordearen Arautegi Organikoak 3. artikulua hiru paragrafoan xedatutakoaren arabera, batzorde horren txostena ez da nahitaezkoa.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz emandako txostena aztertu da.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

## XEDATZEN DUT

**1. artikulua. 2021eko ekitaldian aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Foru Arauaren 45.2 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako**

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren azaroaren 27ko 33/2013 Foru Arauak 45.2 artikuluan xedatutakoa betetzeko, honako hauek izango dira 2021eko ekitaldian egiten diren eskualdaketei aplikatu beharreko eguneratze koefizienteak:

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1994 eta aurrekoak	1,645
1995	1,747
1996	1,682
1997	1,645
1998	1,608
1999	1,564
2000	1,511
2001	1,455
2002	1,404
2003	1,365
2004	1,325
2005	1,283
2006	1,240
2007	1,206
2008	1,159
2009	1,155
2010	1,136
2011	1,102
2012	1,077
2013	1,060
2014	1,059
2015	1,059
2016	1,059
2017	1,038
2018	1,022
2019	1,012
2020	1,012
2021	1.000

Hala eta guztiz ere, ondare elementua 1994ko abenduaren 31n eskuratu bazen, 1995eko eguneratze koefizientea aplikatuko zaio.

**2. artikulua. 2021ean hasten diren zergaldietan sozietateen gaineko zergan aplikatu beharreko moneta zuzenketako koefizienteak**

Bat. 2021. urtean hasten diren zergaldietarako, hauek izango dira Sozietateen gaineko Zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauak 40.9 artikuluan aurreikusitako koefizienteak:

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1984ko urtarrilaren 1a baino lehenagokoak	2,584
1984	2,347
1985	2,166
1986	2,040
1987	1,943
1988	1,856

EKITALDIAK	KOEFIZIENTEAK
1989	1,767
1990	1,698
1991	1,642
1992	1,592
1993	1,578
1994	1,547
1995	1,477
1996	1,424
1997	1,400
1998	1,458
1999	1,405
2000	1,311
2001	1,292
2002	1,270
2003	1,252
2004	1,237
2005	1,214
2006	1,191
2007	1,150
2008	1,122
2009	1,110
2010	1,108
2011	1,094
2012	1,085
2013	1,078
2014	1,078
2015	1,072
2016	1,065
2017	1,046
2018	1,032
2019	1,019
2020	1,010
2021	1,000

Bi. Aurreko atalean ezarritako koefizienteak honela aplikatuko dira:

a) Eskuraketa prezioari edo ekoizpen kostuari, ondare elementua eskuratu edo ekoiztu den urtearen arabera. Hobekuntzei aplikatu beharreko koefizientea hobekuntzak egin diren urteari dagokiona izango da.

b) Kontabilizatutako amortizazioei, egin diren urtearen arabera.

#### XEDAPEN INDARGABETZAILE BAKARRA

Indargabeturik gelditzen dira foru dekretu honetan ezarritakoaren kontra doazen maila bereko edo apalagoko xedapenak.

**AZKEN XEDAPENA**

Foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean eta bere artikulatuan adierazitako egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko urtarrilaren 12a

*Diputatu nagusia*

**RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE**

*Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua*

**ITZIAR GONZALO DE ZUAZO**

*Ogasun zuzendaria*

**MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA**